



MERKATARITZA ZUZENBIDEA

BALTZUEN ZUZENBIDEA: TEORIA OROKORRA¹

Igone ALTZELAI ULIONDO

Rosa OTXOA-ERRARTE GOIKOETXEA

AURKIBIDEA: I. Sarrera.-1. Dispersio normatiboa ezaugarri.-2. Baltzuen zuzenbidearen batasuna.-**II. Baltzu kontzeptua.**-1. Doktrina tradizionala.-2. Doktrina berritzailea.-3. Proposamena.-**III. Baltzuen sistema.**-1. Egituran oinarritutako banaketa: Baltzua eta Elkarte.-1.1. Egitura pertsonalista duten baltzuak.-1.2. Egitura korporatiboa duten baltzuak.-2. Merkataritzako baltzuak.-2.1. Merkataritzako izaera definitzen duten irizpideak.-2.2. Merkataritzako baltzuen sistema.-3. Baltzuzko erkidegoa .-**IV. Baltzu kontratua.**-1. Baltzu kontratuaren eduki bikoitza.-1.1. Obligazio-eremua.-1.2. Antolaketa eremua.-2. Baltzuen nortasun juridikoa.-2.1. Nozioaren egungo egoera: kontzepzio instrumentala.-2.2. Pertsona juridikoen subjektibazio maila desberdinak.-2.3. Nortasun juridikoaren eskuratzea.-2.4. Nortasun juridikoaren “ezeztapena”.-3. Baltzuen eraketa.-3.1. Eraketa kontratua eta bere elementuak.-3.2. Formazko eta publizitatezko betekizunak.-3.3. Irregularitasun arazoa.-3.4. Eraketako akatsak: baltzu askatasuna = baltzu deuseza.-
Bibliografia.

LABURDURAK

MK Merkataritza Kodea

KZ Kode Zibila

KBL Kapitalezko baltzuen legea

LED Legegintzarako Errege Dekretua

LSC *Ley de sociedades de capital*

I. Sarrera

Merkataritzako kodearen 1. artikulua merkataria definitzerakoan merkataria pertsona fisikoa eta merkataritzako baltzuak aipatzen ditu. Jarduera ekonomikoaren zati nagusia gaur egun azken hauen esku dago arrazoi desberdinengatik. Batzuetan pertsona bakar batek ezin duelako enpresa batek behar duen inbertsioa egin eta beharrezkoa delako bazkide gehiagoren partaidetza. Beste batzuetan jarduera ekonomiko batek dakarren arriskua mugatu nahi delako. Bai kodean, bai merkataritzako lege berezietan legegileak eredu desberdinak eskaintzen ditu bazkide desberdin horien lanikidetzak antolatzeko, bai barnera begira, beraien arteko harremanetan, bakoitzaren eskubide eta obligazioak zehaztuz, bai kanpora begira talde bezala hirugarrenekin izango dituzten harremanetan. Azken puntu honi begira zehaztu behar da zeinek ordezkatu dezaken taldea eta nola erantzungo den sortutako obligazioengatik.

¹ Fakultate honetan lanean hasi ginenean ez zegoen hainbat eta hainbat kontzeptu juridiko adierazteko terminologiari buruzko adostasunik. Mintegi eta bilera ugari egin ziren garai hartan instituzio juridiko desberdinentzako hitz egokienak aukeratu nahian. Guk gaztelerazko “*sociedad*” hitzaren baliokide bezala **baltzu** hitza proposatu genuen RVAP aldizkarian argitaratu zen lan batean (RVAP 35, 1993, 225 e.o.), baina gero sozietate hitza nagusitu da kalean. Irakurlearen esku uzten dugu aukera.



Antolaketa eredu guzti horiek aztertu behar dira baltzuen zuzenbidean, baina baltzu mota bakoitza ikusi aurretik beharrezkoa da baltzuekin sortzen den pertsona juridikoaren funtzionamendu orokorra aztertzea, hau da, teoria orokorra ikustea.

Merkataritzako Kodeak, merkataritzako baltzuen atala baltzuaren definizio batekin (MK 116.I art.) zabaltzen du². Dena den definizio honek ez ditu errealitatean ikusi ditzakegun baltzu eredu guztiak barnebiltzen eta horregatik doktrina saiatu da kontzeptu zabalago bat aurkitzen, non ezinbestezkoak diren elementuak besterik ez diren jasoko. Baltzuaren kontzeptu zabal hori, kontzeptu bakarra eta bateratua da Zuzenbide pribatu guztirako eta, beraz, baliagarria baltzu forma guztietarako, sinpleenak eta konplexuenak barne.

Ikasgai honen helburua, hain zuzen, baltzuaren definizioa aztertzea izango da. Oinarrian dagoen kontratuaren ezaugarriak juridikoki aztertzea, bere efektuak zeintzuk diren argitzea eta, bere elementuak ordenatzea kontratuen teoria orokorrean barnebildurik. Lehenik, baltzu mota guztien inguruko arazoak ikusiko ditugu eta ondoren, baltzu mota bakoitzaren azterketa egingo da.

1. Dispersio normatiboa ezaugarri

Baltzuen araudiaren lehenengo ezaugarri bereizgarria dispersio normatiboa da. Izan ere, baltzuak zuzenbide pribatuko kodeetan (kode zibilean eta merkataritzako kodean) eta zenbait lege berezitan daude arautuak. Baina, kontuan hartu beharrezkoa da berme konstituzional bat dutela guztiak, Konstituzioko 22. artikulua ematen duena: elkartzeko eskubidea.

2. Baltzuen zuzenbidearen batasuna

Aipatutako oinarri konstituzional horrek eramaten gaitu, baltzuaren figura desberdinak bateratu eta sistematizatzerara. Oinarri horrek sortzen du *baltzu* eta *elkarte* fenomeno funtsezko bateratze bat ematearen kontzientzia piztea. Hau kontutan izanik, eta testu desberdinetan jasotzen diren baltzu eredu guztiak aztertu ondoren, baltzuaren definizioa hauxe litzake: *helburu zehatz eta komun bat lortzeko kontratu bidez sortzen den pertsona elkarte, non kide bakoitzak ekarpen bat egingo duen helburu horren lortzera zuzendua dagoena.*

Definizioaren elementuak ez betetzeagatik, baltzuen arlotik kanpo geratzen dira, eta beraz euren tratamendu juridikotik kanpo, honako hauek:

- (1) Zuzenbide publikoko korporazioak.
- (2) Famili zuzenbideko erkidegoak.
- (3) Oinordetza erkidegoak.
- (4) Fundazioak.
- (5) Ondasun erkidegoak (KZ 392. art.).

² Kode zibilak 1665. artikuluan ematen duena errepikatzen du eta noiz den kontratua merkataritzakoa adierazten digu.



II. Baltzu kontzeptua

Baltzu kontzeptua ematerakoan proposamen desberdinak egiten dira doktrinan.

Merkataritzako doktrina zahar eta tradizionalena, merkataritzako baltzuaren legezko definiziotik abiatzen da. Aldiz, *doktrina berritzaileenak* errealitatea aztertzen du eta honekin batera lege desberdinetan arautzen diren baltzu mota desberdinak, komunak diren elementuen bila. Ikuspegi berritzaile honetan, baltzu zuzenbidearen batasunaren alde egiten da eta horren errotua dagoen dispertsio normatiboa gainditu nahi da.

1. Doktrina tradizionala (hertsia goa)

Doktrina tradizionala Kode Zibileko 1665. artikulua³ eta Merkataritzako Kodeko 116. artikuluetatik⁴ abiatzen da. Honela, baltzu kontzeptua doktrina tradizionalaren arabera, honako hau da: *borondatez sorturiko pertsona elkarte, ondare fondo komun bat eratzen duena eta jarduera ekonomiko bat ustiatuz, mozkainak lortu eta partaideen artean banatzeko sortzen dena*.

Azter ditzagun jarraian kontzeptu horrek barnebiltzen dituen elementuak:

(1) *Kontratuazko jatorria*: baltzuak borondatezko jatorria du, hots, ez da lege ezarritako pertsonen elkartratzea.

(2) *Ondare komuna*: dena den bazkide guztiek ez dituzte derrigorrez ondarezko ekarpenak egin behar, bazkideek baltzuan egindako lana ere ekarpenzat hartu daiteke.

(3) *Irabazji asmoa*: doktrina tradizionalak hitzez hitz interpretatzen du kodea, eta baltzu kontratuaren helburua, nahi eta nahi ez, irabazi asmoa dela dio. Hala ere, geroz eta gehiago dira sektore honen barruan elementu honen beharra sumatzen ez dutenak. Bestiak beste legegileak kasu batzuetan espresuki uko egin diolako. Adibidez, ekonomia intereseko elkartearen legearen 2.2 artikuluan⁵, sozietate honek ez duela irabazteko asmorik izango jasotzen da.

(4) *“Affectio societatis” delakoa*: ez da erreza elementu hau kontratua egiteko kontsentimenduarengandik desberdintzea, baina doktrina tradizional honek eta jurisprudentziak ere aipatzen duten elementua da. Benetan kide izateko eta helburu komun horren lortzera zuzendua lan egiteko borondatea litzake *affectio* hau.

³ “La sociedad es un contrato por el cual dos o más personas se obligan a poner en común dinero, bienes o industria, con ánimo de partir entre sí las ganancias.”

⁴ “El contrato de compañía, por el cual dos o más personas se obligan a poner en fondo común bienes, industria o alguna de estas cosas para obtener lucro, será mercantil, cualquiera que fuese su clase, siempre que se haya constituido con arreglo a las disposiciones de este Código”.

⁵ Art. 2: 1. La finalidad de la Agrupación de Interés Económico es facilitar el desarrollo o mejorar los resultados de la actividad de sus socios. 2. La Agrupación de Interés Económico no tiene ánimo de lucro para sí misma.



2. Doktrina berritzailea (zabalagoa)⁶

Doktrina berritzailea, azken batean, doktrina tradizionalari egindako berrikuspenaren emaitza da. Emaitza honetatik honako baltzu kontzeptua eratortzen da: *kontratu bidez, helburu zehatz eta komun bat lortzeko eratu den talde pribatua, non bazkide bakoitzak bere ekarpena egingo duen helburu hori lortu ahal izateko.*

Doktrina berritzaileak emandako kontzeptu horretan hiru elementu bakarrik ikusi daitezke:

(1) *Kontratuaren jatorria*: KZ 1665. artikulua arabera, baltzua bere fundatzaileen borondatearen bitartez sortzen da.

(2) *Helburu komuna*: KZ 1666.I artikuluan⁷ eta beste hainbat datu positibotan (aipatu dugu ekonomia intereseko elkarteen legea, e.a.) nola bere jatorri historikoan oinarrituz, irabazi asmoaren elementuarekin apurto nahi du doktrina berritzaileak. Beharrezkoa ikusten du bakarrik helburu hori, edozein izanda ere, bazkide guztien helburu izatea (helburua mutualista izan daiteke, altruista...).

(3) Bazkide guztien ekarpena: ekarpen hau zentzu zabalean ulertu behar da, garrantzitsua da bazkide bakoitzak bere aldetik, helburu komuna lortzear, zerbait egin edo ematea.

Doktrina honek lege desberdinetan jasotzen diren baltzu mota guztiak aztertuz eta hauetan beti agertzen diren elementuak aukeratuz aurkezten du bere definizioa. Proposatutako kontzeptua zabalagoa izanik errealitate gehiago barnebildu daitezke baltzu kontzeptuan, ez bakarrik irabazi asmorik ez duten taldeak, baita ere ondare komunik ez dutenak, nortasun juridiko propiorik ez dutenak, e.a. Talde pribatu guzti hauek baltzu kontzeptutik kanpo geratzen dira doktrina tradizionalaren kontzeptua erabiliz gero. Horregatik, *baltzuaren kontzeptu zabalaz* edo *baltzu orokorreaz* hitz egin dezakegu.

3. Bateratze proposamena⁸

Orain artekoa ikusirik, badakigu, *doktrina tradizionala* legezko definizioari oso lotua dagoela eta horregatik arauketa behar duten hainbat fenomeno kanpoan uzten dituela. Hala nola, barneko sozietateak⁹, helburu mutualista dutenak¹⁰, noiz behinekoak... Aldiz, *doktrina berritzaileak* irabazi asmoaren elementua kanpoan utziz, esan daiteke Kode Zibileko (1665.art.) eta Merkataritza Kodeko (116. art.) hitzen aurka doala.

Aipatutako bi doktrinak zailtasunak planteatzen dituztenez, egokia iruditu zaio doktrinaren beste zati bati *erdibideko proposamen* bat egitea. Honela, *baltzuen eraentza aplikatzea proposatzen da, analogia bidez, bi pertsona edo gehiagoren arteko batasunen kasuan, beraien borondatez*

⁶ PAZ-ARES da doktrina berritzaile honen ordezkari nagusia, bere planteamendua URJA/MENÉNDEZ, *Curso de Derecho Mercantil I*, 2006, (469 o.) eskuliburuan kontsulta daiteke.

⁷ “La sociedad debe tener un objeto lícito y establecerse en interés común de los socios.”

⁸ Proposamen hau EIZAGUIRREK egiten du bere eskuliburuan, ikus, *Derecho de Sociedades*, 2001, 14. o.

⁹ Nortasun juridiko propiorik ez dutenak: hiru abokatu batzen dira bulegoko gastuak eta azpiegitura konpartitzeko.

¹⁰ Mutualitateak konfiantzan eta elkarrekikotasunean oinarrituriko zerbitzu batzuk jasotzearen biltzen diren pertsona taldeak dira. Hauen artean aseguru mutualitateak, lan istripuen eta gaixotasun profesionalen mutualitateak, ehorztetxe mutualitateak, eta abar.



*elkartu direnean, edozein helburu komun bultzatzeko asmoarekin. Azken ondorioa doktrina berritzailearen bera da, baina ez dago kodeen *contra legem* interpretazio bat egin beharrik.*

III. Baltzuen sistema

Baltzu kontzeptu zabaletik abiatuz aipatuko dugu zein figura legalek biltzen dituzten baltzu kontzeptu orokor horrek berekin dakartzan elementuak: *kontratuazko jatorria, helburu komuna eta berau aurrera eramateko taldekide guztien parte hartzea.*

1. Egituran oinarritutako banaketa: *Baltzua eta Elkartea*

Ikuspuntu sistematiko batetik, klasifikaziorik adierazgarriena egitura oinarritutakoa da. Irizpide hori harturik, egitura pertsonalista eta korporatiboa duten baltzuak bereiz ditzakegu. Bi baltzu mota hauek baltzu Zuzenbideko arketipo unibertsalak dira, izan ere, desberdintasun honek adierazpen gaitasun handia dauka.

1.1. Egitura pertsonalista duten baltzuak

Egitura pertsonalista duten baltzuak *lotura pertsonal estuan oinarritzen* diren baltzuak dira. Baltzu mota horietan, *kontratuan aldaketarik egin nahi bada, kide guztien adostasuna* beharko da. Bestalde, *kudeaketan guztiak hartu dezakete parte, eta baltzuaren zorroretaz, bazkideek erantzungo dute modu subsidiarioan.* Hots, lehenik, baltzuaren ondare guztiarekin erantzungo da eta hau nahikoa ez denean, bazkideek euren ondarearekin erantzungo dute.

Egitura horri erantzuten dioten forma sozialak honako hauek dira:

- (1) Kode Zibileko baltzua (KZ 1665. art.).
- (2) Baltzu kolektiboa (MK 125. art.).
- (3) Baltzu komanditarioa sinplea (MK 145. art.).
- (4) Partaidetza kontuak (MK 239. art.).
- (5) Aldi baterako enpresa batzeak (*Unión Temporal de Empresas*, 18/1982 Legea).
- (6) Ekonomia intereseko elkartzea (*Agrupación de Interés Económico*, 12/1991 Legea – *Agrupación Europea de Interés Económico* / CEE, 2137/85 Erregelamendua).

1.2. Egitura korporatiboa duten baltzuak

Egitura korporatiboa duten baltzuetan *taldea da garrantzia duena eta ez bera osatzen duten elementuak.* Beste modu batean adierazita, baltzuaren antolaketa eta bazkideen pertsona zehatzak *autonomoak* dira.

Baltzu mota hauetan, *aldaketak gehiengoak erabakitzen ditu, organoen bitartez funtzionatzen da eta, bazkideek ez dute baltzuaren zorroretan pertsonalki erantzuten.*

Egitura korporatiboari jarraitzen dioten forma sozialak honako hauek dira:

- (1) Elkartea (Lege 1/2002).
- (2) Baltzu anonimoa (2010eko KBL-LSC Legea).



- (3) Erantzukizun mugatuko baltzua (2010eko KBL-LSC Legea).
- (4) Akziozko baltzu komanditario (MK 151. art.).
- (5) Kooperatibak (27/1999 Legea, Euskadiko kooperatiben Legea, 4/1993 Legea)¹¹.
- (6) Elkar bermezko baltzuak (*sociedad de garantía recíproca*, 1/1994 Legea).
- (7) Laguntzaroko aseguru baltzuak (*sociedades de seguro mutuo*, 30/1995 Legea)

2. Merkataritzako baltzuak

2.1. Merkataritzako izaera definitzen duten irizpideak

Baltzuaren merkataritzako izaerak, hots, baltzu jakin baten izaera zibila edo merkataritzakoa duen zehazteak, galdera bikoitza planteatzen du. Alde batetik, *merkataritzako izaera objektiboa* edo baltzuak duen izaera zibila edo merkataritzakoa kontratu gisa eta bestetik, *merkataritzako izaera subjektiboa* edo baltzuaren merkataritza izaera pertsona juridikoa bezala.

Doktrinan, kodeak jarraituz, bi irizpide erabili dira izaera argitzeko: formarena eta jarduerarena. Lehenengoari jarraituz merkataritzako kodeko edo lege berezietako forma bat aukeratuz eratzen diren baltzuak izango dira merkataritzakoak. Bigarrenari jarraituz merkataritzako jarduera bat ustiatzeko eratzen diren baltzuak izango dira merkataritzakoak.

Lehenengo irizpidea merkataritzako kodean oinarritzen da, 116. artikuluan; bigarrena aldiz kode zibilean, 1670. artikuluan. Biak kontuan izanda eta hasieran esan bezala, izaera objektiboa eta subjektiboa desberdindu behar ditugu.

(1) Merkataritzako izaera objektiboa

Merkataritzako kodean edo lege berezietan jasotako formak erabiliz eratzen diren baltzuak objektiboki merkataritzakoak izango dira, hau da, merkataritzako kodearen arabera arautuko dira beraien bazkideen eskubide eta obligazioak eta hirugarrenekin dituzten harremanak. Printzipioz merkataritzako jarduera burutzeko taldeek forma hauek aukeratu beharko dituzte, hauetariko bat. Merkataritzako forma eta merkataritzako jarduera eskutik joango lirake. Baina Kode Zibilak onartzen du jarduera zibilak merkataritzako baltzu mota bat aukeratuz antolatzea (KZ 1670 art.). Ezingo dena da merkataritzako jarduera bat ustiatzeko forma zibila erabili. Beraz, merkataritzako jarduerak bere garapenerako merkataritzako forma galdatzen du, baina, merkataritzako forma ez dago soilik merkataritzako jarduerara erreserbatua, jarduera zibilerako erabil daiteke.

¹¹ Kooperatiben izaera asko eztabaidatu da eta eztabaidatzen da oraindik ere. Ez da, momentuz, merkataritzako societatea eta hori bere helburua ez delakoz irabaziak lortu eta bazkideen artean banatzea, elkartuen beharrian komunak asetzea baizik (beharrian ekonomiko, sozial eta kulturalak). Merkataritzako instituzioa ez denez bera arautzeko eskuduntza ez dago Estatuaren esku (KE 149.1.6 art.). Honela lege estatal baten ondoan (LC 27/1999) elkarre autonomoetako lege desberdinak ditugu, gure artean 4/1993 Legea, Euskadiko Kooperatibena.



(2) *Merkataritzako izaera subjektiboa*

Merkataritza Kodeak, 1. artikuluan, merkataritza izateko merkataritzako jarduera bat garatzea eskatzen du. Baina gero, merkataritza pertsona juridikoak aipatzerakoan, subjektuaren merkataritza izaera tipoaren merkataritza izaerarekin lotzen du. Gauza da, esan bezala, da korrelazio hau Kode Zibileko 1670. artikulua malgutu eta bigundu egiten duela. Izan ere, Kode Zibilak trafikoko zibilaren zerbitzura uzten ditu merkataritza zuzenbideko antolatze moduak, merkataritzako kodeak egiten duen merkataritzako tipo eta jardueraren arteko korrelazioa hautsiz.

Korrelazio honen apurtzeak, “baltzu mistoak” direlakoak agerrarazi ditu. Baltzu hauek objektiboki, merkataritzakoak dira euren forma merkataritzakoa delako, baina, subjektiboki, zibilak dira ezin direlako merkataritza izan ez dutelako merkataritzako jarduera bat lantzen.

Badaude baina formagatik merkataritza diren baltzu motak ere: *baltzu anonimoa, erantzukizun mugatuko baltzua, akziozko baltzu komandataria, elkar bermezko baltzua eta interes ekonomikodun batzueak*. Hau horrela da forma hauek arautzen dituzten legeetan horrela jasotzen delako.

Beraz, baltzu kolektiboa eta komandataria objektiboki merkataritzakoak eta subjektiboki zibilak izan daitezke. Honek esan nahi du ez zaiela merkataritza estatutua aplikatuko.

2.2. *Merkataritzako baltzuen zerrenda*

(1) **Baltzu kolektiboa**

Merkataritza Kodeko 125. artikuluan eta ondorengoetan arautua dago, egitura pertsonalista duen baltzua da eta bere ezaugarriak azpimarragarriena bere bazkideen erantzukizun sistema da: baltzuaren zorrez bazkide guztiek erantzukizun pertsonal eta solidarioa dute, baltzuaren hartzekodunen aurrean erantzuten dute subsidiarioki bada ere. .

(2) **Baltzu komanditario sinplea**

Merkataritza Kodeko 145. artikuluan eta ondorengoetan arautua dago, egitura pertsonalistakoa da baita eta aurrekoaren aldaera bat dela esan genezake. Izan ere, baltzu honetan erantzukizun mugatua (komanditarioak) eta mugagabea duten bazkideak daude.

(3) **Akziozko baltzu komandataria**

Kapitalezko baltzuen legean (1/2010 LSC) arautua dago eta izaera korporatiboa dauka. Bazkide komanditarioek egindako ekarpenengatik akzioak jasotzen dituzte. Hauek ez dute beraien ondare propioarekin baltzuaren zorrez erantzungo, baina gutxienez bazkide kolektibo bat egongo da baltzuan erantzukizun mugagabea duena.



(4) Baltzu anonimoa

Kapitalezko baltzuen legean arautua dago, egitura korporatiboa dauka, kapitala delarik bere elementu garrantzitsuena. Hemen ere, kapital hori akzioetan dago banandua bazkideek egindako ekarpenen bitartez integratzen delarik. Aldiz, baltzu anonimoetan, aurrekoan ez bezala, bazkideek ez dute zor sozialengatik erantzungo. Erantzukizuna ondare sozialaren gain egongo da soilik. Oro har, akzioak libreki transmitigarriak dira.

(5) Erantzukizun mugatuko baltzua

Kapitalezko baltzuen legean dago arautua. Izaera hibridoa duen baltzua da. Egitura korporatiboa du, baina estatutuen bitartez pertsonalizatu daiteke. Horretaz gain izaera itxia du partizipazioak ez baitira libreki eskualdagarriak.

(6) Ekonomia intereseko elkartzea

Ekonomia intereseko elkartzeen legean arautzen da (12/1991 Legea). Egitura pertsonalista dauka eta bere helburua, irabazi asmorik gabekoa da. Bere kideen jarduera ekonomikoa erraztu edo garatu nahi da bere bitartez. Bazkideek zor sozialen aurrean pertsonal eta solidarioki erantzuten dute.

(7) Elkar bermezko baltzua

1/1994 legean arautua dago. Kapitalezko baltzua da, bere kapitala aldakorra delarik. Helburu mutualistakoa da, helburu hau kideei krediturako bidea erraztea delarik. Horretarako baltzuak bere kideek askatutako kredituak bermatzen ditu.

3. *Numerus clausus* delakoaren printzipioa

Doktrinan planteatu zen bere garaian zenbaterainoko aukera daukaten alderdiek legeak ezarritako tipoez beste, kontratu bidez mota berriak sortu edota asmatzeko. Arazo honi, hots, baltzu moten *numerus apertus* edo *numerus clausus* delakoari, Merkataritza Kodeko 122. artikulua egiten dio erreferentzia. Izan ere, artikulua horrek dio *arau orokorrez, merkataritzako baltzuak forma jakin baten bitartez eratuko direla: 1. kolektiboa; 2. komanditario sinplea edo akzioengatikoa; 3. anonimoa; 4. erantzukizun mugatukoa.*

Bazirudien, beraz, posible litzakeela, borondatearen askatasunean oinarrituz, sozietate mota berriak sortzea. Baina ez da hau doktrinak eta jurisprudentziak onartu duten MK 122. artikulua interpretazioa. Ulertu da atipizitatea soilik tipo konkretuen barnean eman daitekeela eta ez tipo berriak sortzeko. Atipizitateari buruz hitz egiten dugunean legea aldatzen duen araudi partikularrari buruz ari gara. Esan bezala borondatearen askatasunaren manifestazio bat da, eta onartzen da baltzuen zuzenbidean ere, baina eremu baten barnean. Eremu hori legean araututako tipo bakoitzak finkatzen du. Mota bakoitzaren kontratuen klausulen atipizitatea onartzen da, ez tipoen.



Beraz, tipo “hobeago” bat bilatu nahi bada, aurreikusitako tipoen bermearekin egin behar da, bazkideek egokitu dezakete tipo bakoitza beraien beharretara, baina ez mota guztiz berriak sortu. *Numerus clausus* printzipioak, ez du suposatzen baltzuen zuzenbideak autonomiaren borondatea eskluditzen duenik. Baina bere bitartez bermatu nahi dira baltzuekin harremanetan dauden hirugarrenen interesak, hauek ezagutu behar baitute zer pertsona motekin kontratatzen duten; bereziki erantzukizunaren eraentza zein izango den. Esandako guztia kontuan hartuz, Merkataritza Kodeko 122. artikulua interpretatu behar da ulertuz, ez duela baztertzen merkataritzako baltzuak beste tipo batzuen bitartez eratzea, beti ere, beste tipo horiek, legeak aurreikusiak badira. Honela, merkataritzako baltzu bat eratzeko asmoa dutenek, jakin beharko dute, tipifikatutako forma bat aukeratu beharko dutela. Autonomia pribatua beraz legezko tipoen barnean emango da, sortzeko askatasuna eman beharrean, konfiguratzeko askatasuna emanaz.

Autonomia honek baditu baita zenbait muga:

(1) *Izaera inperatiboa duten xedapenak*. Oro har, autonomia pribatuaren jokia izaera dispositiboko xedapenen inguruan ematen da, baina ez izaera inperatibokoetan. Baltzuen zuzenbidean izaera inperatiboa dute eta ezin dira bazkideen erabakiz aldatu, bereziki, baltzuaren ordezkapenari eta bazkideen erantzukizunari buruzko xedapenak.

(2) *Mota bakoitza definitzen duten ezagutari tipologikoak*. Hauek ez daude legetan finkatuta, doktrinaren eta jurisprudentziaren zeregina delarik beraien identifikazioa.

Bazkideek ez badute araututako mota bat aukeratzeko, edo aukera hori egiteko ukanbeharrak ez badira betetzen, merkataritzako baltzu orokorra den baltzu kolektiboaren eraentza aplikatzen da. Honek suposatzen du bazkideentzako dagoen eraentza zorrotzena aplikatuko dela, beti ere trafikoaren eta hirugarrenen interesak babesteko.

4. Baltzuzko erkidegoa (“*comunidad de bienes*”, C.B., “*comunidad societaria*”)

Hauxe da atipizitaearen eredu argi bat. Ondasun erkidegoa (CB) ez dago baltzuen katalogoaren barnean, nahiz eta instituzio juridiko bezala arautua dagoen kode zibilean.

Kode Zibilaren 392. artikulua araberan, ondasun erkidegoa dago, ondasun edo eskubide baten gaineko jabetza zenbait pertsonari indibisoan dagokienean (titularitate amankomun disgregatua). Kode zibilak kasu horretan arautzen ditu pertsona horien eskubide eta obligazioak ondasun edo eskubidearekiko. Ondasun erkidego honek, noski, ez du nortasun juridikorik.

Kontua da, *errealitatean* erkidego kontratuak “eratzeko” direla jarduera ekonomiko bat ustiatzeko eta irabaziak lortu eta kideen artean banatzeko. Eta helburu hori bera da baltzu kontratuetako kausa. Beraz, ulertzen bada kausa baltzuetako kausa bera dela, baltzutzat hartuko da erkidego deiturikoa¹². Ondoren zehaztu beharko da, jardueraren araberan, merkataritzako izaera duen edo zibila. Izaera merkataritzako bada, *baltzu kolektiboaren eraentza aplikatzen* da, hau delako, jadanik esan den bezala, merkataritzako baltzu orokorra.

¹² Auzitegi Gorenaren epai askotan egin da aipaturiko “birkalifikazio” hori. Ikus beste batzuen artean, 1993ko uztailak 24koa; 2008ko azaroak 19koa edo 2009ko otsailak 18koa.



Azken batean, *juridikoki ezin da figura hau onartu bi arrazoiengatik*: alde batetik, legezko instituzioak ordenamenduak aurreikusitako helburuetarako erabili behar direlako (KZ 6.4 art.) eta bestetik, hirugarrenen eskubide eta interesak defendatu behar direlako. Erkidegoak nortasun juridikorik ez duenez, kontratua egin duen “bazkidea” litzake erantzule bakarra hirugarrenen aurrean, ez taldea bera bere ondarearekin, ezta beste bazkideak ere.

IV. Baltzu kontratua

Pertsonen borondatezko elkartratze bezala, baltzuak negozio eratzailer batean du bere jatorria. Nahiz eta asko eztabaidatu den negozio horren izaeraren inguruan, onartzen da kontratuzko izaera duela.

1. Baltzu kontratuaren eduki bikoitza

Bi dira kontratuaren edukia aztertzerakoan kontutan izan behar ditugun atalak: *obligaziozkoa eta antolakuntzazkoa*. Lehenengoan baltzu kontratuak kontratukideentzat sortzen dituen eskubide eta obligazioak ikusiko ditugu. Bigarrean objektu sozialaren garapenerako kontratuak sortzen duen antolaketa bateratua ikusiko dugu, pertsona juridiko berri baten sorrerarekin burutzen da antolaketa izan ere.

1.1. Obligazio-eremua

Baltzu kontratuari, kontratua izanik, obligazioen zuzenbidea aplikatu behar zaio; baina baditu kontratu bezala bere berezitasunak eta hauek ere kontutan izan behar dira aplikagarritasun hori finkatzerakoan.

Baltzu kontratua ez da kontratu sinalagmatikoa, bazkideen obligazioaren kausa ez baita kontraprestazio bat jasotzea; kausa helburu komun bat burutzea da. Hori da benetan inporta duena, ekarpenak ez baitira elkartrukerako erlazio baten baitan egiten. Beraz, *sinalagma printzipioak indarra galtzen du baltzu kontratuan*. Honela, ulertu daiteke zenbait kasutan baltzu kontratuan sortzen diren arazoak ez direla obligazio sinalagmatikoen eskema jarraituz konponduko, baltzu zuzenbidearena jarraituz, baizik.

Kontratuan sor daitezkeen arazoak direla eta, obligazio bereziak ezartzen zaizkie kideei. Hala nola, garrantzia handia dauka *portaera leialaren obligazioak*¹³. Obligazio honek eskatzen duena da bazkideak unero interes sozialaren alde egin beharko duela. Hau urratuz gero, bazkideak gertatu daitezkeen kaltea erreparatu beharko du eta hainbat kasutan kanporatua izan daiteke.

¹³ PAZ-ARES, 483. o.



1.2. Antolaketa eremua

Baltzu kontratua, antolakuntzazko kontratua ere bada: taldea elkartu eta talde honi gaitasuna ematen dio kanpo erlazioak izateko. *Bazkide taldeak nortasun juridiko propioa lortzen du.*

Baltzuen nortasun juridikoa, baltzuaren kontratua ospatzen den une berean bereganatzen da. Eta, obligaziozko eraginkortasunaren antzera, antolakuntzazko eraginkortasuna eta kontratua perfektutzea bat etorriko dira.

Taldeak *ondare berezi bat* sortuko du hartzekodunen beharrak asetzeko eta *gaitasun osoa* izango du trafikoan jarduteko.

Salbuespen bat badago: *barneko baltzua*, baltzuen forma oinarrizkoena dena. Bere kideen arteko harremanetan agortzen da kontratuaren edukia; taldea ez da batera agertzen trafikoan, hirugarrenen aurrean. Kode Zibilak aipatzen du 1699. artikuluan eta Merkataritzako Kodean ere jasotzen da partaidetza kontuen figura bezala. Kasu hauetan taldeak ezin du, talde bezala, kanpora begira jardun, ez du nortasun juridikorik. Barneko baltzua izango da, adibidez, arkitekto talde bat, estudioa alokatu eta mantentzeko biltzen dena, baina non bakoitzak bere bezeroak propioak dituen.

2. Baltzuen nortasun juridikoa

2.1. Nozioaren egungo egoera: kontzepzio instrumentala

Pertsona juridiko esapideak *egozpen mekanismoari* egiten dio erreferentzia, zeinaren bitartez:

(1) baltzu-taldea osatzen duten kideek egindako egintzak, izen komunaz baliatuaz, baltzu horri dagozkion egintzaz hartuko dira eta ez egintza indibidualtzat (*taldearen jardueraren bateraketa*).

(2) egintza horien ondorioen egozpena, hots, eskubide eta obligazioen eskurapena, taldearena izango da eta ez, bera osatzen duten kideena (*ondarearen banantzea*).

Pertsona juridikoek gaitasun juridikoa osoa eskuratzen dute eta euren jarduera organo bitartez egikaritzen dute. Egikaritze horretan, baltzuaren eta bazkideen erantzukizuna bananduta daude. Beraz, hirugarrenen aurrean, baltzuak erantzungo du une horretan duen ondare guztiarekin, baina ez bazkideek. Ondare propioaz gain, nortasun juridikoa duten baltzuek bere egoitza zein nazionalitate propioak izango dituzte.

Baina nortasun juridikoaren jaiotzeak ez du esan nahi zuzenbideko subjektu berri bat jaiotzen denik, taldea osatzen duten pertsona fisikoen erlazio juridikoak aldatzen direla baizik. Erlazio horiek ez dira zuzenbide komunaren menpe egongo, baltzuen zuzenbide berezipean baizik. Azken batean nortasun juridikoa arau jakin batzuk aurkezteko esamolde bat besterik ez da. Benetako pertsona berri bat ez dagoelako posible izango da, gero ikusiko dugun bezala, hainbat kasutan harremanak bazkideen harreman bezala ikustea eta ez talde “pertsonifikatuarenak” bakarrik.



2.2. *Pertsona juridikoen subjektibazio maila desberdinak: baltzu pertsonalistak eta kapitalezkoak*

Nortasun juridikoaren errekonozimenduak ez ditu ondorio berdinak nortasun hori duten talde guztientzat. Hau da, kontuan hartzen baditugu baltzu tipo desberdinen *erregulazio zehatzak* eta konkretuki, *baltzu pertsonalista eta kapitalezkoen arteko desberdintasunak*, argi dago ezinezkoa dela horietan guztietan pertsona juridikoak adiera bera izatea.

Oinarritzko nortasun juridiko eta *erabateko nortasun juridikoaren* arteko desberdintasuna egin genezake¹⁴.

(1) *Oinarritzko nortasun juridikoa*: hau baltzu sinpleenak izaten dute, *izaera pertsonalistako baltzuak*, beti ere, kanpoko baltzu bezala eratu badira. Bazkideen eta taldearen arteko lotura handiago bat mantentzen da. Honela, bazkideek, bazkide bezala, baltzuaren izenean kontratatu dezakete Aldi berean zor sozialetaz erantzuten dute, nahiz eta subsidiarioki.

(2) *Erabateko nortasun juridikoa*: nortasun juridiko hau berriz, baltzu konplexuenei aplikatzen zaie, *egitura korporatiboko baltzuei*. Hemen bazkideen eta taldearen arteko banantze zorrotzagoa. Bazkideek ezin dute, bazkide gisa, baltzua ordezkatu eta ez dute, printzipioz, zor sozialez erantzuten.

2.3. *Nortasun juridikoaren eskuratzea*

Nortasun juridikoa eskuratzeko ukanbehar desberdinak eskatzen ditu legegileak maila bakoitzeko:

(1) *Oinarritzko nortasun juridikoaren eskuratzea*: oinarrian dagoena bazkideen borondatearen errekonozimendua da, zeina baltzuaren kontratuan islatzen den. Bazkideek antolatzen badute baltzua kanpo-baltzu bezala trafikioan modu bateratuan jarduteko, antolatze horrekin batera jaioko da pertsona juridiko berria. Beraz, nortasun juridikoa baltzu kontratuaren perfektutze unean sortzen da¹⁵.

(2) *Erabateko nortasun juridikoaren eskuratzea*: nortasuna erabatekoa den kasuetan, oinarritzko eskurapenetan ez bezala, forma ukanbehar batzuk eskatzen dira: kontratua eskritura publikoan jasotzea eta merkataritzako erregistroan inskribatzea.

2.4. *Nortasun juridikoaren “ezeztatpena” (desestimación): KZ 6-7 artk.*

Nortasun juridikoaren errekonozimenduak, oro har, abantailak dakartza bai bazkideentzako bai trafikiko ekonomikoarentzako. Lehenengoentzako, batez ere, zor sozialez erantzun behar ez duten baltzuetan (baltzu anonimoan edo erantzukizun mugatuko baltzuan, adibidez). Baina, zenbait kasutan nortasun juridikoa modu okerrean erabiltzen da, hots, legeak babesten ez duten helburuetarako, hirugarrenen kalterako. Horrelakoetan,

¹⁴ EIZAGUIRRE, 79. o.

¹⁵ Honela mantentzen du PAZ-ARESek, URÍA-MENÉNDEZ, 486. o. Ez da, baina, hori izan doktrina tradizionalaren planteamendua. Honek, gero ikusiko dugun bezala, merkataritzako erregistroan egindako inskripzioa eskatzen du.



auzitegiek nortasun juridikoak dakarren banaketa, taldearen eta bere kideen artekoa, gainditzen dute gehienetan¹⁶ baltzuen erantzukizuna bazkideetara luzatzeko. Nortasun juridikoaren ezeztapenari buruz hitz egiten du jurisprudentziak kasu hauetan. Doktrinak¹⁷ lau taldetan sailkatu ditu kasu horiek:

(1) *Ondare nahasketa*: bazkidek ez dute errespetatu beraien eta taldearen ondarearen artean dagoen banaketa, beraz ezingo diete hirugarrenei banaketa hori aurka jarri.

(2) *Kanpoko zuzendaritza*: baltzu taldeen egoeretan ematen da. Espainian ez dago baltzu taldeei buruzko araudi berezirik, beraz ez da jasotzen baltzu menperatzaileen erantzukizun sistemarik. Hutsune hau jurisprudentziak betetzen du kasu larriengan nortasunaren ezeztapenaren teoria erabiliz. Honi esker posible izango da erabaki kaltegarriak hartu dituen baltzu menperatzaileari baltzu menperatuen zorretaz erantzule egitea. Dependentsia harremana ez da baina argudio nahikoa erantzukizun hori galdatu ahal izateko.

(3) *Infrakapitalizazioa*: kapitalezko baltzuak eratzeko legeak gutxieneko kapitalak galdatzen ditu: 3.000 € erantzukizun mugatuko baltzuak eratzeko¹⁸ eta 60.000 € baltzu anonimoak eratzeko. Baina legeak ez du galdatzen kapital hori egokia izatea aukeratu den objektua, hau da jarduera ekonomiko zehatza, garatu ahal izateko gutxieneko arrakasta aukera batekin. Egindako inbertsioa nahikoa ez denean jardueraren porrotaren arriskua handitzen da eta, hau gertatu ezker, hartzekodunen kredituak neurri handi batean ordaindu gabe geratuko dira. Planteatzen da orduan zilegia den bazkideek erantzukizunik ez izatea beraien portaerarekin (baltzua kapital txikiarekin sortzearekin, hau da, infrakapitalizazioarekin) hirugarren eskubideak urratu direnean.

(4) *Nortasun juridikoaren abusua*: baltzua sortzen da hirugarrenen eskubideen iruzurrean: adibidez bahitura baten aurrean bazkideak baltzua eratzeko arriskuan dauden ondasunak ekarpen bezala baltzuen eskuetan utziz, honela beste pertsona batenak izanez baitu ezingo direlarik.

Kasu horietan guztietan nortasun juridikoaren abusua ematen dela esaten da, bazkideek nortasun horrek dakarren ondare banaketari probetxua ateratzea dutelako helburu. Kode zibilarren 6 eta 7. Artikuluak oinarri bezala harturik, “*Levantamiento del velo*” (*piercing the corporate veil*) doktrina aplikatzen dute epaileek entitate eta baltzuen “barruan” (“*substratum*”) zer edo nor dagoen aztertzeko. Eta barruan dauden horiei egotzen zaizkie egindako kontratuen ondorio juridiko zein ekonomikoak. Jurisprudentziaren esanetan *segurtasun juridikoaren eta justiziaren arteko gatazka juridikoa* ematen da eta gatazka horretan justiziaren printzipioa nagusitu behar delarik.

¹⁶ Beste ondorio batzuk ere izan ditzake ezeztapenak, ikus EIZAGUIRRE, 92. o.

¹⁷ VICENT CHULIA, *Introducción al derecho mercantil I*, 2012, 475. o., PAZ-ARES, 589. o.

¹⁸ 2013an egindako erreformari esker, zilegia da erantzukizun mugatuko baltzua kapital txikiago batekin eratzea, baina orduan arau desberdin batzuk aplikatuko zaizkio minimo hori lortzen ez duen bitartean.



3. Baltzuen eraketa

Baltzua kontratua denez, kontratu ororentzat eskatzen diren elementuak izan behar ditu (KZ 1261 art.): *kontsentimendua*, *objektua* eta *kausa*. Izan ere, elementu hauek ez dituen kontratua edo elementu hauetan akatsak dituen *denseza* izango da. Bestalde, zenbait kasutan, *forma eta publikitatearen* ukanbeharrak ere galdatzen dira.

3.1. Eraketa kontratua eta bere elementuak

(1) Kontsentimendua edo adostasuna

Kontsentimendua gutxienez bi subjektuk (fundatzaile izango diren bazkideek) kontratuaren oinarritzko elementuen gain euren borondatea aurkeztea litzateke. Oinarritzko elementu horiek, helburu komuna eta beraren promozio komuna egitera zuzentzen dira.

Dena den, legez onartzen da bazkide bakarreko baltzua; beraz, borondatea subjektu bakar batena izan daiteke. Figura hau 1995ean jasotzen da lehenengo aldiz erantzukizun mugatuko legean Europako Ekonomia Elkartearen 12 zuzentaraua jasoz (89/667/CEE). Bertan bi aukera ematen ziren: enpresari pertsona fisikoaren erantzukizuna mugatzekoa edo bazkide bakarreko sozietatearen onartzea. Azken hau izan zen espainiar legegilearen aukera. Kontsentimendua ematerakoan aipatu beharko da aukeratzen den baltzu tipo berezia (komanditarioa, anonimoa, mugatua...). Ez bada ezer esaten, jardueraren arabera, baltzu zibil edo kolektiboaren araudia aplikatuko da.

Bestalde, beharrezkoa da kontsentimendua modu librean eratu eta adieraztea. Eta beharrezkoa izango da ere kontsentimendua obligatua geratzeko gaitasuna duen pertsonak ematea.

(2) Objektua

Idea oso zabaldua da kontratuaren objektutzat, helburu komuna lortzera bideratutako ekintza programatua hartzea. Baina, kontratuaren objektua propioki, *helburu soziala aurrera ateratzeko bazkideek egiten dituzten ekarpenak osatzen dute*. Ekarpene horren objektua, ekonomiko baloragarria eta helburu soziala lortzera bideratutako edozein ekarpen izan daiteke.

(3) Kausa

Baltzu kontratuaren kausa, *alderdiek jarraitzen duten helburu komunarekin* identifikatzen da. Kausa hurbilari buruz ere hitz egiten da doktrinan, azken hau ustiatuko den jarduera zehatza delarik¹⁹.

¹⁹ Ikus PAZ-ARES, 510. o., EIZAGUIRRE, 109. o.



3.2. Formazko eta publizitatezko betekizunak

Merkataritzako Kodetik (51-117. art.) eratortzen denaren arabera, baltzu kontratua *forma askatasunaren printzipioaren* arabera arautzen da. Baina, printzipio honek ez du adiera berbera doktrina tradizionala eta berritzailearentzat.

Doktrina berritzailearen arabera, MK 119. artikulua galdatzen duen eskritura publikoaren eta inskribatzeko betekizuna, ez da kontratua baliozko bihurtzen duen elementu bat. Hau da, eskritura publikoaren galdakizuna inskripzioaren auresupostu bat besterik ez da, eta azken honek izaera deklaratuak besterik ez du. *Salbuespen bakarra, kapitalezko baltzuak dira*. Izan ere, kapitalezko baltzuen legeak dioenez beharrezkoa da kapitalezko baltzu bezala eratzeko kontratua eskritura publikoan jasotzea eta hau merkataritzako erregistroan inskribatzea (MK 33. art.).

Bestalde, *publizitateari* dagokionez, doktrina berritzailearen ustetan publizitateak soilik hirugarrenei kontratua aurkajartzeko aukera ematen du. Hau da legearen araudia aldatzen duten klausulak hirugarrenei aurkajartzeko (adibidez baltzuaren administrazioaren antolaketari buruzko arauak) beharrezkoa izango da kontratua inskribatua egotea. Horrela ez bada, legean jasotako arau dispositiboak aplikatuko dira eta ez bazkideek kontratuan adostutakoak.

Doktrina tradizionalaren ikuspegitik berriz, oinarri gisa MK 116.2 eta 119. artikulua harturik, eskritura publikoa zein inskripzioa behar-beharrezkoak dira baltzuak bere nortasun juridiko propioa lortu dezan eta beraz baltzua baltzu bezala jaio dadin. Inskripziorik gabe ez legoke baltzurik.

3.3. Irregularitasun arazoa

Arestian aipatu bezala, Merkataritza Kodeko 119. artikulua baltzuak bere jardura hasi aurretik kontratua eskritura publikoan jasotzeko eta Merkataritzako Erregistroan inskribatzeko beharra jasotzen du. Hala ere, esperientziak erakusten du, formaltasun horiek batez ere kapitalezko baltzuek betetzen dituztela, ez hainbeste baltzu pertsonalistek. Beraz, merkataritzako baltzu pertsonalista asko baltzu irregularrak dira (baltzu kolektiboen arazo nagusia ere, bere irregularitasuna izan ohi da) eta ez bakarrik hauek.

Doktrina berritzailearekin batera, uste dugu irregularitasuna ez da formazko arazo bat, publizitatezko arazoa baizik. Dokumentu publikoan ageri ez den merkataritzako baltzua, ez da irregularra forma jakin bat falta zaiolako, inskribatu ez delako baizik. Azken batean, irregularitasunak ez du eraginik kontratu kideen artean, baltzuaren kanpoko eremuan baizik. Beraz, *aztertu behar da baltzu irregular batek nortasun juridikorik duen ala ez*. Doktrinan, aipatu dugun bezala, bi erantzun eman zaizkio galdera honi.

Doktrina tradizionalaren arabera, inskribatu gabeko baltzuak ez du nortasun juridikorik. Baltzua ez bada inskribatu Merkataritza Kodeko 119. artikulua galdatzen duen arabera, ezin daiteke kontsideratu merkataritzako kodearen xedapenen arabera eratu dela; ondorioz, ezin izango zaio nortasun juridikoa onartu. Beraz, doktrina tradizionalaren arabera esandakoak bi ondorio garbi ditu: alde batetik, baltzuak hirugarrenekin ospatutako kontratu guztiak deusezak izango dira (MK 118. artikulua interpretazioa) eta bestetik, kudeatzaileek izango dute (MK 120. art.) egindako kontratuekiko erantzukizuna.



Doktrina berritzailearen arabera, aldiz, interpretazio honek santzionatu nahi diren bazkideen mesederako ondorioak ditu eta babestu nahi direnak (inskribatu gabeko baltzuarekin kontratatzen duten hirugarrenak) kaltetzen ditu. Horregatik bestelako interpretazio baten beharra ikusten du²⁰.

Baltzu irregularrei nortasun juridikoa ez aurreikustean, beraiei egokitutako ondarea ez da hirugarrenekin sortutako zorrak ordaintzeko erabiliko, eta bazkideek ez dute beraien ondare osoarekin subsidiarioki erantzungo. Bestalde, baltzuaren izenean ospatutako kontratuak deusezak badira hirugarren fede onekoak berain interesak babesteko duten instrumentu bakarra kudeatzaileen erantzukizuna da.

Horregatik merkataritzako zuzenbidean hirugarren fede onekoen, eta beraz trafikoaren, segurtasunaren babesean oinarritzea den printzipioa jarraituz, doktrina berritzaileak irregulartasunaren ondorio hauek ezeztatzen ditu. Baltzuak nortasun juridikoa lortuko du (maila baxuena bada ere) eta bere kudeatzaileek baltzuarekin batera solidarioki erantzungo dute hirugarrenen aurrean (MK 120. art.). Kapitalezko baltzuak ez dira kapitalezko baltzu bezala jaioko irregularrak badira, baina bai baltzu bezala, baltzu kolektiboen edo zibilaren (jardueraren arabera) araudia aplikatuko zaielarik. Interpretazio hau jaso da kapitalezko baltzuen legean 39. artikuluan. Gauza bera esan beharko litzake baltzu pertsonalisten kasuan: nortasun juridikoa dute. Ondorioa kasu hauetan publizitate materialaren printzipioari lotuta egongo da: ez dira aurkagarriak izango legearen araudia aldatzen duten eta kontratuan jasotzen diren klausulak.

3.4. Eraketako akatsak: baltzu akastuna = baltzu deuseza

Esan dugu baltzua kontratu bat dela eta kontratu bezala hiru elementu izango dituela: kontsentimendua, objektua eta kausa. Obligazioen teoria orokorrari jarraituz hauetako elementu batean akatsik balego, kontratua deuseza izango litzake.

Akatsak egoteak ez du eragin larriegirik baltzuaren barne eremura begira, baina, bai kanpora begira. Izan ere, hirugarrenen interesak kaltetu daitezke, hauek baltzu baliozko batekin kontratatzen zutela uste zutelako eta harremanetik eratorritako eskubideak izango dituztelako. Deuseztasunaren eraentza orokorra aplikatu ezker deuseza den baltzu baten izenean egindako kontratu guztiak ere deusezak izango lirateke, baina honek trafikoa eta hirugarren fede onekoak babesik gabe uzten ditu, horregatik ondorioak beste batzuk izan behar dute.

Deuseztasuna deklaraterakoan jarduera ekonomikoa martxan jarri gabe balego, eta beraz ez balego babesa behar duen hirugarrenen, bazkideei egindako ekarpenak itzuli beharko zaizkie. Baina baltzu akastunak jarduerari hasiera eman badio eta hirugarrenekin harremanak sortu badiu (beti ere ez badago maila handiagoko interes orokor zein partikularrik, adibidez baltzuaren objektua legearen kontrakoa bada), harreman hauek balio mantenduko dute, ez dira deuseztatuko. Deuseztasunak desegite kausa bezala jokatuko du eta kitapen prozesua irekiko. Honela zorrak ordainduko dira, kredituak kobratu, bizirik dauden kontratuei amaiera emango zaie eta ondarerik geratuko balitz bazkideen artean

²⁰ Ikus PAZ ARES, 554 o., EIZAGUIRRE, 117. o.



banatuko da. Honela jasotzen da esanbidez kapitalezko baltzuen legean (57. art.), baina erantzun berdina ematen dute doktrinak eta jurisprudentziak baltzu pertsonalisten kasuan.

BIBLIOGRAFIA

- PAZ-ARES RODRÍGUEZ, Cándido, URÍA GONZÁLEZ, Rodrigo, MENÉNDEZ MENÉNDEZ, Aurelio, *Curso de Derecho Mercantil I*, Civitas, Madril 2006.
- EIZAGUIRRE BERMEJO José María de, *Derecho de Sociedades*, Civitas, Madril, 2001.
- VICENT CHULIA, Francisco, *Introducción al Derecho Mercantil I*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2012.